

FITXA: 255 – Ebazpena, 2026ko uztailaren 7koa, Gizarte Eskubideetako, Kontsumoko eta 2030 Agenda Ministerioarena, toki-erakundeetan 2030 Agenda bultzatzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Nori zuzendua:

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikuluan jasotako toki-erakundeak izan ahalko dira erakunde onuradun. Horri dagokionez, honako erakunde hauek hartuko dira tokiko lurralde-erakundetzat:

- a) Udalerria
- b) Probintzia
- c) Uhartea Balearretako eta Kanarietako artxipelagoetan
- d) Lege honekin eta kasuan kasuko autonomia-estatutuekin bat etorritik autonomia-erkidegoek eratuta zenbait udalerrri biltzen dituzten eskualdeak edo bestelako erakundeak.
- e) Metropoli-areak
- f) Udalerrien mankomunitateak

Deialdia: EAO - Estatuko Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/07/09
Ofiziala

Sarbide-esteka:

https://sede.mscbs.gob.es/registroElectronico/formularios.htm#idTRAM_SUBIMPULSOENTL_OCALES

Erreferentziazko araudia: 2026ko uztailaren 7ko Ebazpena

Oinarri arautzaileak: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-%2011218

Deialdiaren laburpena: <https://boe.es/boe/dias/2026/07/09/pdfs/BOE-B-2026-23632.pdf>

Deialdiaren xehetasunak:

<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatorias/9>

Eragin eremuak: Tokiko Garapena eta Enplegua

Zenbatekoa: 5.977.299,28 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/07/10

Aurkezteko azken eguna: 2026/08/10

Aurrerakina: Ez da zehaztu.

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: 250.000,00 €

Gutxieneko zenbatekoa: 20.000,00 €

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Ebazpenaren xedea da 2026rako diru-laguntzen deialdia egitea, toki-erakundeetan 2030 Agenda ezartzea, lerrokatzea eta kokatzea sustatzen duten proiektu eta ekimenetarako.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) 2030 Agenda toki-eremuan ezartzeko planak egitea.
- b) Udal plan estrategikoak 2030 Agendara egokitzeko proiektuak.
- c) 2030 Agenda inplementatzeko Planean eta/edo beste plan estrategiko batzuetan ezarritako lehentasunei erantzuten dieten jarduketak, baldin eta haien helburua bada 2030 Agendarekin lerrokatutako erantzun bat ematea lurraldean.
- d) 2030 Agenda sentsibilizazio- eta kontzientziazio-proiektuak, tokiko herritarrei eta/edo tokiko eragile guztiei zuzenduak, gaitasunak sortzea barne.
- e) 2030 Agenda ezartzen eta toki-eremuan garapen jasangarrirako helburuak lortzen lagunduko duten ekimenak.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diru-laguntzek diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozen eta behar-beharrezkoak diren gastuak soilik estali ahal izango dituzte.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektu bakoitza gauzatzeko gehieneko epea urtebetekoa izango da, diru-laguntzak emateko ebazpena diru-laguntzen datu-base Nazionalean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.